

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA Ikasgaia: Osasun Publikoa Kodea: 26212	Mota: Oinarrizko Zientziak Eskolen Kronograma: 1. lauhilekoa Hizkuntza: Euskara/Gaztelania ECTS kredituak: 6 Kurtsoa: 1.Maila
Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua Osasun eta osasun publiko kontzeptuak eta euren determinatzaileak (sozialak, ingurugiro arlokoak eta biologikoak. Mikroorganismoak. Kate epidemiologikoa. Gaixotasun transmitigarrien kontrol-, zaintza- eta prebentzio-neurriak.	
Sartzeko eskakizunak/gomendioak Ez dauka	

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
Irakasgaiaren arduraduna D ^a : Milagros Fernández Córdoba	945 218083	milagros_fernandez@ehu.eus
Euskerazko lerroko irakasleak D ^o . Asier Léniz Rodríguez Alaitz Yoldi Mitxelena	945 218084 945 218416	asier_leniz001@ehu.eus alaitz_yoldi002@ehu.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- C1. Osasun eta Osasun Publiko kontzeptuak bereiztea, Osasun Planak ulertzeko.
- C2. Osasunaren ingurumen-baldintzatzaileak identifikatzea, baita sozialak eta biologikoak ere.
- C3. Prozesu infektiosoa azaltzea, transmisio-mekanismoak eta prebentzio-neurriak ezagututa.

ZEHARKAKO GAITASUNA:

ZG. Ideiak eta ezagutzak ahoz adieraztea azalpen argi, ordenatu eta laburbildu batekin, hainbat baliabide erabiliz eta egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz.

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1: Osasun eta Osasun Publiko kontzeptu desberdinak bereizten ditu.
- IE2: Osasunaren baldintzatzaileek gizakiarengan duten garrantzia justifikatzen du.
- IE3: Osasun Publikoan ikertzeko eta giza biztanlerien gaineko azterlanak egiteko erabiltzen diren metodoak ezagutzen ditu.
- IE4: Fenomeno epidemiologikoak neurtzeko ariketak ebazten ditu.
- IE5: Kate epidemiologikoa osatzen duten elementuak deskribatzen ditu.
- IE6: Erizaintzan asistentzia sanitarioari lotutako infekzioak (ASLI) prebenitzeko neurrietan gauzatzen dituzten jarduerak arrazoitzen ditu.
- IE7: Identifikatu egiten ditu prebalentzia handiena duten gaixotasunak, transmisio-ereduen arabera.
- IE8: Transmisio-ereduaren arabera gaixotasun infekzioso desberdinen prebentzio-neurriak bereizten ditu.
- IE9: Txertaketa-egutegi ofiziala interpretatzen du, eta bere aplikagarritasuna ezagutzen du.
- IE10: Ahoz komunikatzeko gaitasuna erakusten du.

EDUKIAK

I. UNITATEA: OSASUN PUBLIKOAREN HASTAPENAK

- 1.1 Osasunaren kontzeptua.
- 1.2 Gaixotasunen patroia epidemiologiko orokorra.
- 1.3 Osasun Publikoaren eta Komunitarioaren erizaintza.

II. UNITATEA: OSASUNAREN INGURUMEN-BALDINTZATZAILEAK

- 2.1 Airea.
- 2.2 Zarata.
- 2.3 Ura.
- 2.4 Lurzorua.
- 2.5 Etxebizitza eta hirigintza-antolamendua.

III. UNITATEA: OSASUNAREN BALDINTZATZAILE SOZIALAK

- 3.1 Osasun Sistema.
- 3.2 Desberdintasunak osasunean.

IV. UNITATEA: OSASUNAREN BALDINTZATZAILE BIOLOGIKOAK

- 4.1 Mikrobiologia eta immunitatea.
- 4.2 Bakteriologia, biologia, parasitologia eta mikologia.

V. UNITATEA: EPIDEMIOLOGIA ETA GAIXOTASUN KUTSAGARRIAK PREBENITZEA

- 5.1 Demografia eta Epidemiologia.
- 5.2 Kate epidemiologikoa.
- 5.3 Txertoak
- 5.4 Asistentzia sanitarioarekin lotutako infekzioa. (ASLI)
- 5.5 Gaixotasunen erregistroa.
- 5.6 Prebalentzia handien duten gaixotasun transmitigarriak, transmisio-ereduen arabera:
 - Aire bidezko transmisioa.
 - Ur eta elikagai bidezko transmisioa.
 - Kontaktu eta sexu bidezko transmisioa.
 - Bektore bidezko transmisioa.

Tailerra:

- Profesional sanitarioentzako eskuen higiena eta eskuen garbiketa kirurgikoa.
- Eremu/gainazal esteril bat prestatu eta mantentzea erizaintzako prozedura ezberdinak egiteko Eskularru esterilak janztea eta kentzea.
- Norbera babesteko ekipoa janztea eta kentzea.
- Lagin biologikoak biltzea

Mintegia:

- Fenomeno epidemiologikoak neurtzeko ariketak.
- Ikasturte hasieran definitu beharreko lan bat egitea eta ahoz azaltzea.
- Esterilizazio-unitatea eta laborategia bisitatzea

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	TAILER-ORDUAK
1	Asier Léniz Rodríguez	2	0	0
2		4	0	0
3		2	0	0
4	Alaitz Yoldi Michelena	4	0	0
5	Asier Léniz rodríguez	6	2	0
	Alaitz Yoldi Mitxelena	26	6	8
GUZTIRA		44	8	8

METODOLOGIA

Ikasgai honetan, askotariko irakaskuntza-metodologiak erabiltzen dira.

- **Klase magistralak**; horietan irakasleak ikasleen parte-hartzea sustatuko du, jorrotutako gaiei buruzko ikus-entzunezko aurkezpen eta bideoekin.
- **Mintegiak** talde txikietan, irakasgaiaren hasieran zehaztuko diren jarduerak egiteko.

- **Laborategiko praktikak/Tailerra**, erizaintzako prozedurak lantzeko. Ikasleek, tailerra baino lehen, hautatutako dokumentuak irakurri/ikusi beharko dituzte (eGelan eskura egongo dira), eta tailerrean test-galderen formulario bati erantzun beharko diote.

LAN PRESENTZIALA (60 ORDU)		
Klase magistrala	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra
44	8	8

LAN EZ-PRESENTZIALA (90 ORDU)		
Gidatutako lana	Bakarkako lana	Talde-lana
5	65	20

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

EBALUAZIO-SISTEMAK

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Ebaluazio jarraituko sistemak honako jarduera hauek ditu:

- IDATZIZKO PROBA (AZTERKETA) %75

Idatzizko proba galdera laburrekin edo/eta testa. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren %25 deskontatuko du. Azterketa gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea.

- 1.TEST MOTAKO PROBA, PROZEDUREI BURUZKOA (LABORATEGI-PRAKTIKAK/TAILERRAK) %10

4 Tailer egitea, bakoitza %2,5eko balioarekin (%1 testa eta %1,5 erakustaldi praktikoa). Tailer guztietara joatea. Ebaluazio-jarduera hori gainditzeko, nahitaezkoa da tailer bakoitza 10etik 5eko edo hortik gorako notarekin gainditzea.

- PRAKTIKAK EGITEA (ARIKETAK) %5

Mintegi baten bidez, %5eko balioarekin. Mintegi guztietara joatea. Mintegi hori gainditzeko, nahitaezkoa da tailer bakoitza 10etik 5eko edo hortik gorako notarekin gainditzea.

- LANAK AHOZ AZALTZEA: %10

Mintegien bidez, %10eko balioarekin. Mintegien %80ra gutxienez joatea. Jarduera hori gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN%
G1, G2 eta G3	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6, IE7 eta IE8	Eskola magistralak	-Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa	%75
G2 eta G4	IE4 IE9 eta IE10	Mintegiak	- Ariketak: fenomeno epidemiologikoak neurtzea - Lan bat ahoz azaltzea	%5 %10
G3	IE6	Laborategiko praktikak / Tailerra	- Testa eta erakustaldi praktikoa	%10

Ikasgai honen gaitasunak gainditzeko, ebaluazio-jarduera guztiak modu independentean gainditu behar dira: 10 puntutik gutxienez 5 puntu. Amaierako kalifikazioa lortzeko, ebaluazio-jarduera guztiak batu behar dira.

* *Laborategiko praktikei eta mintegiei dagozkien kalifikazio egokiak ikasturte akademiko batean gordeko dira.*

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Azken azterketara aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat. Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek ebaluazio-mota hau eskatu ahaliko dute. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak %33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkarietan aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Azken ebaluazioko sisteman, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- IDATZIZKO AZTERKETA %90
 - Idatzizko proba galdera laburrekin eta testa. Testeko erantzun oker bakoitzak galderaren balioaren %20 deskontatuko du. Balioa: %75
 - Laborategiko praktiken/tailerren testa: %10. Azterketa amaitzean, ikasleek tailerreko praktika bat egin beharko dute 3. gaitasuna gainditu dutela frogatu ahal izateko.
 - Mintegiaren ariketak: fenomeno epidemiologikoak neurtzea: %5

Azterketa gainditzeko, nahitaezkoa da ebaluazio-jarduera bakoitza 10etik 5eko edo hortik gorako notarekin gainditzea.

- LANAK AHOZ AZALTZEA %10
Jarduera hau gainditzeko, ikasleek idatzizko lan bat entregatu beharko dute, ikasgaiaren aurkezpenean zehaztuko dena. Azterketa amaitzean, ahozko aurkezpena egin beharko du zeharkako kompetentzia gainditu ahal izateko.

Jarduera hori gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	%KALIFIKAZIO GLOBALA
G1, G2 eta G3	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6, IE7 eta IE8	Klase magistralak Mintegiak Laborategiko praktikak / Tailerrak	- Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa	%90
G4	IE9, IE10	Mintegiak	- Lan bat ahoz azaltzea	%10

Irakasgai honetako gaitasunak gainditzeko, ebaluazio-jarduera guztiak modu independentean gainditu behar dira, 5 edo gorako nota batekin.

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2022-2023 ikasturteko irakasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

**Tailer eta mintegien kalifikazio egokiak ikasturte batean gordeko dira.*

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek, aukeratu duten ebaluazio-sistema edozein dela ere, eskubidea izango dute ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketetara eta ebaluazio-jardueretara aurkezteko.

Ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ohiko deialdian gainditu diren gaitasunen nota gordeko da.

Ezohiko deialdiaren azken azterketetara edo probetara ez aurkezteak «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Gonzalez Martinez M.A. Conceptos de salud pública y estrategias preventivas. Elsevier. Barcelona 2013.
- * Piédrola Gil, G y col. Medicina Preventiva y Salud Pública. 12. edizioa. Bartzelona: Masson; 2016.

Interneteko helbideak

- * 2020ko txertoen eskuliburua. OSAKIDETZA. <https://www.euskadi.eus/informacion/manual-de-vacunaciones/web01-a2adik/es/>
- * Euskal Estatistika Erakundea EUSTAT.
https://es.eustat.eus/estadisticas/tema_16/opt_0/ti_Estado_de_Salud/temas.html#axzz2PyaZ9Q9n
- * Estatistika Institutu Nazionala INE. <http://www.ine.es/>

OHARRAK

Ikasturtearen hasieran, ikasgaiarekin lotutako dokumentazioa jarriko da ikasleen eskura eGelan.

TUTORETZAK

Irakasgaiko irakasleekin egindako tutoretza-eskaerak posta elektronikoz izapidetu beharko dira, irakasgaiaz arduratzen den irakaslearen bitartez. milagros.fernandez@ehu.eus eta, ahal dela, 3-4 ikasleko talde batentzat eskatuko dira. Ez daude eskola presentzialen absentiak ordezkatzera bideratuta.